

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### KIROLAREN OSASUNAREN ETA GARAPENERAKO LANKIDETZAREN SAILA

**Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2025eko otsailaren 14eko erabakiaren laburpena, zeinaren bitartez garapenerako lankidetzaren proiektuetarako 2025eko dirulaguntza-deialdia egiten baita**

BDNS (Identif.): 817738.

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/-es/convocatoria/817738>).

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2025eko otsailaren 14eko erabakiaren laburpena, zeinaren bitartez garapenerako lankidetzaren proiektuetarako 2025eko dirulaguntza-deialdia egiten baita.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru laguntzen Datu-base Nazionalean kontsulta daiteke (<https://www.pap.hacienda.gob.es/bdns-trans/GE/es/convocatorias/817738>).

#### **Lehena. Entitate eskatzaileak**

UK atalean, 2023ko eta 2024ko garapenerako lankidetzako dirulaguntza-deialdietako UK atalean dirulaguntza jaso duten entitateek bakarrik aurkeztu ahal izango dute eskabidea. Deialdi horietan bi proiektu onetsi zitzaizkienek bina eskabide aurkeztu ahal izango dituzte atal honetan.

US atalean, 2024ko garapenerako lankidetzako proiektuetarako deialdian USA atalean ur eta saneamenduaren arloko proiektuen alde aurreko aukeraketa aurretik aukeratutako proiektuak aurkeztu zituzten entitateek bakarrik aurkeztu ahal izango dute eskabidea, proiektu horiek gauzatzeko.

UKA atalean, deialdi honetako 1. eranskinean Vitoria-Gasteizen egoitza eta jarduna izateari dagokionez zehazten diren betebeharrak 5 betetzen dituzten gobernuz kanpoko eta irabazi-asmorik gabeko antolakunde edo entitateek bakarrik eskatu ahal izango dute dirulaguntza.

PT atalean, deialdi honetako 1. eranskinean Vitoria-Gasteizen egoitza eta jarduna izateari dagokionez zehazten diren betebeharrak 4 puntu lortzen dituzten gobernuz kanpoko eta irabazi-asmorik gabeko antolakunde edo entitateek bakarrik eskatu ahal izango dute dirulaguntza.

US, UKA edo UK atalean dirulaguntza eskatzen duten entitateek ezingo dute eskabidea aurkeztu PT atalean.

Deialdiko atal guztietatik kanpo geratuko dira, berariaz, honako hauek:

- Enpresak eta irabazi-asmoa duten bestelako erakundeak.
- Arabako SEADen Lagunen Elkartea, lankidetzaren hitzarmena sinatu baitu Vitoria-Gasteizko Udalarekin.
- Estatuaren, autonomia-erkidegoko administrazioaren, foru-aldundien eta gainerako administrazio lokalen menpeko instituzio eta zerbitzuak.

**Bigarrena. Helburua**

Deialdiaren bidez lan hauetarako laguntza emango da:

- Hiru urteko garapenerako lankidetzaproiektuen amaiera (2023-2025 zikloko urteko proiektu kateatuen hirugarren eta azken urtea).
- 2024ko USA ataleko deialdian aurretik aukeratutako ur- eta saneamendu-azpiegitura eta -sistemen arloko bi urteko (2025-2026) lankidetzaproiektuen hasiera.
- 2026-2028 ekitaldietan diruz lagunduko diren urteko proiektu kateatuen aukeraketa, hiru urtekoak, eta horiek formulatzeko egiteke dauden lan teknikoetan laguntzea.
- Oinarrizko zerbitzuak finkatzeko behar den laguntza teknikoa eta diru-sarrerak sortzeko jarduerak, udal-garapenerako lankidetzaren laguntzarekin abian jarritakoak.
- Gehienez sei hilabeteko epean gauzatzekoak diren lankidetzaproiektu txikiak.

**Hirugarrena. Deialdiaren oinarriak**

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko otsailaren 14an hartutako erabakiaren bidez onetsi ziren, eta ALHAOn argitaratuko dira.

**Laugarrena. Zenbatekoa**

Guztira 1.740.000,00 euro bideratuko dira deialdi honetara, 2025eko udal aurrekontuko 2450 2391 4 8200 Lankidetzarako dirulaguntzak partidaren kontura.

Horretaz gain, 150.000,00 euro bideratuko dira Gasteizko Udal Urak SA (AMVISA) udal enpresaren lankidetzarako aurrekontuaren kontura enpresaren administrazio-kontseiluak 2025eko otsailaren 5ean onetsitako ekarpena. AMVISAREN ekarpena uraren eta saneamenduaren arloko proiektuen US atalera eta ez bestetara bideratuko da.

Guztira, bada, 1.890.000,00 euro izango dira erabilgarri.

**Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea**

UK ataleko proiektuak eta UKA eta LT ataletako laburpen-dokumentuak aurkezteko: deialdiaren laburpena eta deialdiaren oinarriak ALHAOn sartu eta hurrengo 20 egun baliodunetara arte; US ataleko proiektuak proiektuak aurkezteko: 2025eko irailaren 17ra arte; PT ataleko proiektuak aurkezteko: 2025eko ekainaren 25era arte.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko otsailaren 17an

*Kirolaren, Osasunaren eta Garapenerako Lankidetzaren*

*Saileko Administrazio Orokorreko teknikaria*

**MERTXE BAREA DURÁN**